

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Guk eskaintzen dogun zerbitzua, heldu nagusien bizitzak errazteko erabiliko da. Nahiz eta pertsona heldu askok gaitasun fisikoa eta mentala izan, beraien buruaz konpontzeko inoren menpe egon barik gai direnak, batzuetan beraien beharrak asetzeko laguntza behar dabe. Askotan ere, bakardade arazo izaten da, eta heldu nagusi hauek konpania beharrean dagoz. Proposatzen doguna zerbitzu bat da non bolondres batzuk eta nagusi kontaktuan jartzen dira aplikazio baten bidez.

Kontuan izanda heldu gehienak ez dakiela mugikorra asko erabiltzen, zentralita baten bidez zentro jubilatuetan jarriko dogu eta BBK fundazioa daukazan heldu nagusien zentruetan . Bertan, heldu nagusi guztien telefono deiak helduko dira eta formulario bat betez aplikazioan helduaren datu guztiekaz, aplikazioa automatikoki GPS-a erbiliz, pertsona heldutik dagoan bolondres gertuenari helduko jako formularioa (behar dauan beharraz) eta bolondresa lagundu nahi badau helduagaz kontaktuan jarriko da telefonoz.

Hau izango da aplikazioaren logoa.



Gainera helduari segurtasuna emateko, aplikazioan bolondres eta heldu guztien datuak erregistratuta egongo dira arazo bat egon eskero pertsona batez, bere datuak izateko.

Zerbitzu honen bidez, bai heldu nagusiak bai bolondresak etekinak lortzen dabez. Adibidez demagun nagusiak matematikako irakaslea izan dala, ba berak bere laguntza eta ezagutzak eskaintzen deitso bolondresari eta bolondresa trukean konpania egiten deitso.

Gure proposamena beharrezkoa da, izan ere, gero eta pertsona nagusi gehiago dagoz laguntza apur bat behar dabela momentu konkretuetan ez daukiela nori eskatu., adibidez, teknologia berria erabiltzeko zailtasunak edo konpania behar dauala. Eta gure proposamenagaz laguntza hori lortzeko bidea errazten dogu sare kolaborantza sustatuz eta gizarte solidarioagoa bultzatu. Gure ustez beharrezkoa da mundu hobeago bat lortzea. Laburbilduz, gaur egun gure gizartean baztertzen dau arazo bateri garrantzia emon nahi deitsogu.



*Alea iacta est*